

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Udala****Getxoko «Andrés Isasi» Musika eskola erakunde autonomoaren estatutuaren aldaketa partzialaren behin betiko onespena.**

I. 2019ko urtarrilaren 30eko osoko bilkuran hartutako erabakiaren ondorioz, hasiera batean onetsi da Getxoko udal erakunde autonomoaren Musika Eskola «Andrés Isasi», estatutuen aldaketa, herritarren parte hartzea txertatzeko asmoz.

II. Erabaki hori, bere espedientearekin batera, jendaurreko informazio eta interesdunen entzunaldi izapidera menpekotzen da, hogeita hamar egunez, iragarki hori 2019ko otsailaren 13ko 31 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, egoki irizitako erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko.

III. Emandako epean ez denez inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, Alkatetzaren 1898/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onetsitakotzat joko da aldaketa. Horrenbestez, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikulua xedatutakoarekin bat etorri argitaratu da.

ARTEZKARITZA-KONTSEILUAN HERRITARREK PARTE HARTZEARI BURUZ**14. bis. artikulua**

Artezkari-tza-kontseiluko bilerak publikoak izango dira.

Artezkari-tza-kontseiluko gai-zerrendako deialdiak bertako kideei helaraziko zaizkie, 11. artikuluekin bat etorri. Horrez gain, udalaren webgunean argitaratuko dira.

Artezkari-tza-kontseiluan herritarrek norbanako gisa edo Getxoko elkarten erregistroan izena emanda duen elkarte bateko ordezkari gisa har dezakete parte. Azken kasu horretan, ordezkari-tza egiaztatutako beharko da.

Herritarren parte hartzea honako honetan datza:

- a) Artezkari-tza-kontseiluaren gai-zerrendaren edozein puntutan jorratzen den espedientean herritarra hirugarren interesduna den (eta hala egiaztatzen duen) puntuetan: Interesdunak kontseilua egin baino lehenagoko 24 orduko epea izango du hirugarren interesduna dela egiaztatzeko; hartara, gai-zerrendaren punturen eztabaidan parte hartu ahal izango du. Parte hartze horren edukia aurrez helarazi behar zaie Artezkari-tza-kontseiluko kideei, eta azalpena egiteko bost minutu izango ditu.
- b) Artezkari-tza-kontseiluko gai-zerrendaren amaieran eskeak eta galderak egiteko puntua sartuko da. Horretan, bertaratutako herritarrek Artezkari-tza-kontseiluko Presidentetzari eskeak eta galderak egiteko aukera izango dute. Kasu honetan ere, azalpena egiteko bost minutuko txanda izango dute. Kasu honetan, eskea edo galdera erakundearen eskumenekoak diren gaietara mugatuko da.
- c) Kasu bietan, elkarriketa galdera egin duenaren eta Artezkari-tza-kontseiluko Presidentetzaren artean izango da, Artezkari-tza-kontseiluko kide bati zuzenean aipamena egiten zaionean izan ezik. Kasu horretan presidentetzak erantzuteko txanda emango dio kontseiluko kide horri.

AZKEN XEDAPENA

Aldaketa hau datorren udal Korporazioaren agintearekin bat indarrean sartuko da.

Getxon, 2019ko apirilaren 17an. — Idazkari Nagusia, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita